

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 13. saioa

Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 13

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2018ko abenduaren 18a/ 18 de diciembre de 2018 Urgull aretoa 18:30 / A las 18:30 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	21:05 / A las 21:05 horas

GAI ZERRRENDA: ORDEN DEL DÍA:

- | | |
|--|---|
| 1. Aurreko aktaren onarpena (10 minutu) | 1. Aprobación del acta anterior (10 minutos) |
| 2. Lourdes Txiki (15 minutos) | 2. Lourdes Txiki (se pospone al siguiente Consejo) |
| 3. Klima Egokitzan plana (15 minutos) | 3. Adaptación al cambio climático (15 minutos) |
| 4. Eskola Agenda 21 (15 minutos) | 4. Agenda 21 escolar (15 minutos) |
| 5. Artikutza eta Mendizorrotz (15 minutos) | 5. Artikutza y Mendizorrotz (15 minutos) |
| 6. Norberak lekarkeena (10 minutu) | 6. Ruegos y Preguntas (10 minutos) |

BILERAN PARTE HARTU DUTE: HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria Concejala delegada de Medio Ambiente
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	IRABAZI m
KONTSEILUKO KIDEAK	1. HARITZALDE

VOCALÉS DEL CONSEJO	<ol style="list-style-type: none">2. EGUZKI3. DONOSTIA BIZIRIK4. ARANZADI5. KALAPIE6. CRISTINA ENEA FUNDAZIOA7. INGURUGELA-CEIDA8. HERRITARRA 4
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	EMAUS Fundación Social PSOE Director de Medio Ambiente
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Emakumezkoak / Mujeres = 4 Gizonezkoak / Hombres = 8
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Ingurumeneko Goi Mailako Lege Teknikaria / Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente ingurumena@donostia.eus

Saioaren bilakaera:

Desarrollo de la sesión:

1. Aurreko akta onartzea

Aranzadiko ordezkariak eskatu du aurreko bilkuraren aktan lursail batzuen gaineko azalpenak jasotzeko, eta esan diote halaxe egingo dutela. Gainerakoan, onartu dute aurreko bilkuraren akta.

2. Lourdes Txiki

Kontseiluko lehendakariak adierazi du, agenda kontuak direla eta, Hirigintzako ordezkariak ezin izan direla etorri eta barkamena eskatu du horregatik. Hurrengo Kontseilurako utziko dute aztergaia.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak goizean eman die horren berri kideei.

Ingurumen Atalak ere emailaz jakinarazi du hori, goizean.

EGUZKI, HARITZALDE eta DONOSTIA BIZIRIK elkarteetako ordezkariak eta 4. herritarra haserre agertu dira horregatik, uste baitute eremu horretan egin beharreko jarduerak (landaketak eta abar) ahalik eta azkarren egin behar direla, urteko lehenengo hiru hilekoan edonola ere, aldatzen diren zuhaitzak aurrera aterako badira. Udalak adierazi die saiatuko direla hurrengo Kontseilu Sektorialean aztertzen gaia. Urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran izango da hori.

3. Klima aldaketara egokitzeko plana

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak aurkeztu du gaia.

Irabazi taldeko ordezkariak fribolotzat jo du aurkezpena; izan ere, klima aldaketaren eragina ez da izango soilik itsasoaren maila handitzea. Zerbitzuburuak adierazi du aurkezpen laburtu bat egin duela, 15 minutuan ez baitago xeheki azaltzerik 3 azterlanetan eta "Donostia egokitzen da" programaren barruan egindako gainerako jardueretan jasotakoa. Dena dela, adierazi du bidaliko dituztela azterlanak, osorik, emailaz.

4. herritarrak adierazi du Udalak, aldaketari aurre egiteko, jarrera proaktiboa izan behar duela, ez soilik erreaktiboa.

KALAPIEko ordezkariak adierazi du Klima DSS 2050ean igorpenak gutxitzeko jarri diren helburuak asmo handikoak direla (% 80 gutxitzea 2050erako).

HARITZALDEko ordezkariak esan du Udala

1. Aprobación del acta anterior.

El representante de Aranzadi solicita que se añada en el acta anterior una aclaración respecto a unos terrenos, se le comunica que así se hará. Por lo demás se aprueba el acta anterior.

2. Lourdes Txiki (se pospone al siguiente Consejo).

La Presidenta del Consejo se disculpa y aclara que por motivos de agenda no han podido venir representantes de Urbanismo para tratar el tema por lo que se pospone al siguiente Consejo.

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad avisó a los vocales de esto por la mañana.

Desde el Area de Medio Ambiente se informó de esta incidencia por email por la mañana.

Los representantes de EGUZKI, HARITZALDE, DONOSTIA BIZIRIK y la ciudadana n.º 4 muestran su enfado por lo acaecido ya que subrayan que las actuaciones a desarrollar en este ámbito (plantaciones etc.) tienen que ser desarrolladas a la máxima brevedad y en todo caso en el primer trimestre del año, para que los árboles que se planten puedan ser viables. Desde el ayuntamiento se indica que se intentará tratar el tema en el próximo consejo sectorial que será a finales de enero o principios de febrero.

3. Adaptación al cambio climático.

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad presenta este punto.

El representante de IRABAZI califica de "frívola" la presentación, ya que el efecto del cambio climático va mucho más allá de la subida del nivel del mar. La Jefa de Servicio apunta que se trata de una exposición resumida ya que en 15 minutos es imposible entrar al detalle de los 3 estudios y demás actuaciones realizadas en el marco de Donostia se Adapta pero que se les enviarán los estudios completos por email.

La ciudadana n.º 4 indica que se requiere una actitud pro-activa, y no solo reactiva, por parte del Ayto para contrarrestar el cambio.

El representante de KALAPIE indica que los objetivos de reducción de emisiones de Klima DSS 2050 son muy ambiciosos (reducción del 80% para 2050).

El representante de HARITZALDE denuncia las

kontraesanetan erortzen dela: Metroa, Garbera, zuhaitzak botatzea, eta abar.

Kontseiluko lehendakariak aitortu du kostatzen dela atal guztiak mobilizatzea, baina, hala ere, uste du jendea ari dela mezua barneratzen.

4. Eskola Agenda 21

CEIDAKo eta Cristina Enea Fundazioko ordezkariak aurkeztu dute puntua. Dokumentua eskuragarri dago hala nahi dutenentzat.

5. Artikutza eta Mendizorrotz

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak aurkeztu du gaia.

Aranzadiko ordezkariak adierazi du diru gehiago inbertitu beharko litzatekeela lurak erosten, horien ingurumen balioa babesteko.

HARITZALDEKO eta EGUZKIKO ordezkariak lurak artzaintzarako uztearen arriskuaz ohartarazi dute.

6. Galderak eta eskaerak

HARITZALDEKO eta EGUZKIKO ordezkariak salatu dute aspaldi honetan hirian zuhaitzak botatzen ari direla. Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaie zuhaitzak kudeatzeko plan gidari bat izatea, zuhaitzak botatzeko irizpide objektibo eta zorrotz batzuk ezar daitezkeen horren bidez.

Kontseiluko lehendakariak azaldu du Parke eta Lorategien Bulegoak duela horren ardura, eta, haiek diotenez, hainbat direla zuhaitzak botatzeko arazoak: segurtasuna, argia kentzea, zenbait zuhaitzek zoladura altxatzen dutela, eta abar. Azalpenok ez dituzte gogobete adierazitako elkarteetako ordezkariak, eta adierazi dute, zuhaitz gutxiago izanda, txikiagoa dela mantentze kostua.

ARANZADIKO ordezkariak adierazi du luzera begiratu behar dela zer zuhaitz espezie landatu erabakitzeke orduan.

Donostia Bizirik elkarteko ordezkariak hondakinen eta haien jarraipenaren gaineko dokumentu gidariak galdetu du, bai eta hondakinen bilketaren seihilekoko datuez ere. Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak adierazi du goizean bertan bidali duela gai horri buruzko informazioa, postaz.

4. herritarrak salatu du Mercadona ezarri ondoren 90 zuhaitz landatzeko asmoa zutela, eta azkenean

contradicciones en las que incurre el Ayto: El Metro, Garbera, la eliminación de árboles, etc.

La presidenta del Consejo reconoce que cuesta movilizar a todo los departamentos, pero aun así cree que el mensaje va calando.

4. Agenda 21 Escolar

El representante del CEIDA y la representante de Fundación Cristina Enea presentan el punto. El documento esta accesible para el vocal que lo solicite.

5. Artikutza y Mendizorrotz

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad presenta este punto.

El representante de ARANZADI indica que se debiera invertir más dinero en la compra de terrenos con el fin de proteger su valor medioambiental.

Los representantes de HARITZALDE y EGUZKI advierten del peligro que puede suponer dejar terrenos para pastoreo.

6. Ruegos y Preguntas

Los representantes de HARITZALDE y EGUZKI denuncian la tala de arboles que se viene produciendo en la ciudad y ven necesario un plan director para la gestión del arbolado donde se establezcan criterios objetivos y serios para la tala.

La presidenta del Consejo explica que el área responsable es Parques y jardines y que estos indican que se debe a cuestiones de seguridad, a que tapa el alumbrado, a que algunos ejemplares han levantado el pavimento, etc. Estas explicaciones no satisfacen a los representantes mencionados que indican que a menor número de arboles menor es el costo en mantenimiento.

El representante de ARANZADI indica que hay que tener vista a futuro a la hora de elegir las especies de arbolado a plantar.

El representante de Donostia Bizirik se interesa por el documento director de residuos y su seguimiento, así como datos semestrales sobre la recogida de residuos. La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad indica que esta misma mañana ha enviado por correo información sobre este asunto.

La ciudadana n.º 4 denuncia que tras la implantación de Mercadona se preveían plantar 90 árboles y al

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala, 2018-12-18

<p>25 izan direla. Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak adierazi du galdetuko duela horri buruz.</p>	<p>final se han quedado en 25. La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad indica que preguntará sobre este asunto.</p>
<p>21:05ean bukatu da bilera.</p>	<p>Finaliza la sesión a las 21:05 horas</p>